Ordainlekuan portiko berria jartzeko lanek afekzioak sortuko dituzte AP-8ko Zarauzko sarrera eta irteeran ostiralean gauean

Urriaren 23tik, ostiraletik, 21:00etatik, 24ra, larunbatera, 09:30etara Bilboko norabideko irteera eta Behobiako norabideko sarrera guztiz itxiko dira.

Bidegik jakinarazten du, urriaren 23an, ostiralean, hainbat afekzio sortuko direla AP-8ko 38.lotunean, Zarauzko ordainlekuaren berritze-lanek eraginda.

Helburu nagusiena da ordainlekuaren portiko berria jartzea. Horretarako, ostiralean eguerdian muntaketa lanak hasiko dira. Portiko berria egun egiten ari diren azken fasearen bideen erdian utziko da, gauean altxatu eta jarri ahal izateko.

Afekzio nagusiena 21:00etatik aurrera sortuko da. Ordu horretan hasiko dira portikoa altxatzeko eta jartzeko lanak. Eta lan horiek egiteko Zarauzko 38.lotunearen irteera Bilboko norabidean, eta sarrera Behobiako norabidean guztiz itxi behar izango dira. .

Aurreikusita dago lan hauek, larunbatean, 09:30etan amaitzea, beraz, tarte horretan lotune hau erabiltzea aurreikusita zuten erabiltzaileek honako alternatibak izango dituzte

- Bilboko norabidean Zarautzera sartzeko AP-8ko Orioko irteera erabili beharko dute, eta jarraian N-634 errepidea Orio gainetik Zarautzera joateko.
- Zarauztik Behobiako norabidean AP-8ra sarteko, N-634 errepidea erabili beharko dute Orioko lotuneraino.

Bidegik gogorarazten du ordutegi hauek guztiak gutxi gorabeherakoak direla. Horren harian, gomendatzen du zuhurtziaz gidatzeko, bidaiak aldez aurretik

planifikatzeko eta seinaleen zein lanean arituko diren langileen instrukzioak jarraitzeko.

Zarauzko ordainlekua berritzeko lanen azken fasea

Portiko berria jartzeko lanak ordainlekua berritzeko lanen azken fasearen erdian egingo dira. Irailaren erdian markesina zaharraren azken zatia eraisteko eta portikoa eusteko bi zutabeak jartzeko lanak egin ziren, eta orduz geroztik, beste bi bide eraikitzeko hasierako lanak egin dituzte. Bi bide horiek bereizteko lanak hasi aurretik portikoa jarriko da eta, behin jarrita, azken bi bide horiek amaituko dira, eta portikoan jarri beharreko sistema eta informazio pantaila guztiak jarriko dira.

Bidegi 3,4 milioi euroko inbertsioa egiten ari da Zarautz Eko ordainlekua berritzeko. Aurreikusita dago ordainlekua urtea amaitu baino lehen guztiz berrituta egotea.

La colocación del nuevo pórtico producirá afecciones en el enlace de la AP-8 en Zarautz el viernes por la noche

Desde el viernes 23 de octubre a las 21:00 hasta el sábado 24 a las 09:30 horas se cerrarán por completo la salida sentido Bilbao y la entrada sentido Behobia.

Bidegi informa que el viernes 23 de octubre se producirán diversas afecciones en el enlace 38 de la AP-8 en Zarautz, debido a los trabajos de renovación de la estación de cobro.

El objetivo principal es la colocación del nuevo pórtico de la estación de cobro. Para ello, el viernes al mediodía comenzarán los montajes. El nuevo pórtico se situará en la mitad de las dos vías que se están construyendo en la última fase, para poder ser izado y colocado durante la noche.

Así, la afección principal se producirá a partir de las 21:00 horas. En ese momento comenzarán los trabajos de izado y colocado del pórtico. Y para ello será necesario cerrar por completo la salida del enlace 38 sentido Bilbao, y la entrada sentido Behobia.

Esta previsto que estos trabajos se demoren hasta las 09:30 horas del sábado, por lo que las personas usuarias que tuvieran previsto utilizar este enlace tendrán las siguientes alternativas:

- Para salir a Zarautz sentido Bilbao, deberán utilizar el enlace de Orio y después la N-634, para acceder a Zarautz a través del alto de Orio.
- Para acceder a la AP-8 desde Zarautz sentido Behobia, deberán utilizar la N-634 hasta el enlace de Orio.

Bidegi recuerda que estos horarios son aproximados. En este sentido, recomienda

circular con precaución, planificar los desplazamientos con antelación y seguir las instrucciones de las señales, así como del personal que se encuentra en la obra.

Última fase de la renovación de la estación de cobro de Zarautz

Los trabajos de colocación del nuevo pórtico en la estación de cobro de Zarautz se van a realizar mediada la última fase de la obra, que se inició a mediados de septiembre con el derribo de la última parte de la vieja marquesina y la colocación de las dos patas que sujetarán el nuevo pórtico. Desde entonces se han realizado los primeros trabajos para construir dos nuevas vías. Antes de iniciar los trabajos para construir la mediana que las separará se llevará a cabo la colocación del pórtico, y después se continuará con la finalización de las dos nuevas vías y la instalación de todos los sistemas, así como de los paneles informativos.

Bidegi está realizando una inversión de 3,4 millones de euros en la renovación integral de la estación de cobro de Zarautz E. Está previsto que esta renovación este lista a finales de año.

Zarautz, 2026-10-20